Kostalde Harritsua: Geologia, Ekologia, Eskultura

Eka. 03 - Eka. 04 2021

Kod. K03-21

Mod.:
Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa
2021

Jarduera mota
Workshop

Data
Eka. 03 - Eka. 04 2021

Kokalekua
Aquarium Donostia/San Sebastián

Hizkuntzak
Gaztelera Euskara

Balio akademikoa
20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Azalpena

Sinposioa Aquariumean egingo da, edukiera mugatu batekin, gaur egun beteta dagoena, eta online zuzenean ere parte hartu ahal izango da, zoom bidez. Matrikulazio-prozesuan modalitatea aukeratu behar da.

2021eko ekainaren hasieran, Cristina Iglesias artista donostiarraren aparteko lan berria estreinatuko da Donostiako hirian. Iglesiasen lanak Santa Klara uharteko azaleratze harritsuan zaharkituta eta abandonatuta zegoen itsasargi bat eraldatu du, hiritik gertu dagoen badia erdian, ingurune eskultoriko bertikal bat sortzeko. Uharteko harkaitzetan hondoratuta, Iglesiasen lanak euskal kostaldearen ezaugarri diren geologia eta ekologiabarneratzen ditu, uhartea inguratzen duten ur zurrunbilotsuen forma xurgatzailearen barnean.

Azken urteotan, Cristina Iglesiasek eskultura publikoaren forma berriak sortu ditu, espazio zibikoak eta bertan bera utzitako eraikinak berriro irudikatuz, arkitektura, eskultura eta ura konbinatuz, batez ere Anberes eta Toledoko hirigune historikoetan; bai eta Baian (Kalifornia) ur azpian murgildutako kokaleku batean ere. Donostiako udalak enkargatuta eta azken bost urteetan garatua, Iglesiasen proiektu berriak azken urteetako nabarmenetako bat izatea agintzen du.

Eskulturaren inaugurazio publikoa, 2021eko ekainaren 5 eta 6ko asteburuan, eta aurretik "Kostalde Harritsua – Geologia, Ekologia, Eskultura" izeneko sinposioa izango da, James Lingwood, Artangeleko zuzendari eta sortzailea den arte garaikideko adituak, eta Adolfo Uriarte, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaktea zuzendari, geólogo eta ozeanografoak zuzenduta.

Iglesiasen obrarekin zerikusia duten gaietan oinarrituta, sinposioak aditu talde bat bilduko du arte, literatura, geologia eta ekologia alorretan pentsamendua partekatzeko, ekainaren 3ko arratsaldean eta ekainaren 4ko goizean Aquariumeko Auditorioan egingo diren bi saioetan. Zoom bidez ere jarraitu ahal izango da; horretarako, beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea. Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroekin elkarlanean eta BBVA Fundazioaren laguntzarekin antolatutako sinposioa da. Sinposio hau biek garatzen duten Iraunkortasun Foroaren barruan kokatzen da. Era berean, Ihobek eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak ere parte hartzen dute.

Helburuak

Artearen, literaturaren, geologiaren eta ekologiaren arloetan pentsamendua partekatzea diziplina horietan adituak direnekin.

SIMPOSIOko ANTOLAKUNTZA BATZORDEA

- Zuzendariak: James Lingwood eta Adolfo Uriarte
- Koordinatzailea: Manuel Soto

ARTISTA

- Cristina Iglesias

HIZLARIAK

- Penelope Curtis
- Carlos Duarte
- Russell Ferguson
- Beatriz Herraez
- Asier Hilario Orus
- Lisa Le Feuvre
- Manuel Soto

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Fundación
BBVA

ihobe

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako
Foru Aldundia
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

DONOSTIA / SAN SEBASTIAN
AQVARIVM

ARTINGENIUM
ART OFFICE

Donostia
Sustainability
Forum

BASQUE
GREEN
DEAL

Zuzendaritza

James Lingwood

Artangel, Codirector y fundador

James Lingwood Artangeleko zuzendarikidea da Michael Morrisekin batera, 1991tik. Artangelek azken 30 urteetan ekoitzi dituen 100 proiektu baino gehiagoren artean, aipa daitezke Rachel Whitereaden 'House' (1993-94), Matthew Barneyren 'Cremaster 4' (1995), Ilya & Emilia Kabakoven 'The Palace of Projects' (1999), Michael Landyren 'Break Down' (2001), Jeremy Dellerren 'The Battle of Orgreave' (2001), Francis Alÿsen ‘Seven Walks’ (2005), Roger Hiornsen ‘Seizure’ (2009-9), Susan Philipszen ‘Surround Me’ (2010), Heiner Goebblesen ‘Stifter’s Dinge’ (2010-12), Ryoji Ikedaren ‘Spectra’ (2014), ‘INSIDE: Artists and Writers in Reading Prison’ (2016), Taryn Simonen 'An Occupation of Loss' (2018), Elizabeth Priceren 'Slow dans' (2019) eta Steve McQueenek Londresen garatutako 'Year 3' proiektua (2019-20). Cristina Iglesiasek Toledon eginiko 'Tres Aguas' lana Artangelek komisionatu zuen eta 2014an inauguratu zen. Lingwoodek erakusketak komisariatu ditu mundu osoko museoetan.

Adolfo Uriarte Villalba

Director de patrimonio Natural y Geólogo y oceanógrafo

Geologian lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean (Espainia), Msc. eta PhD Ozeanografian, Southamptongo Unibertsitatean (Erresuma Batua). Hainbat proiektu gidatu eta parte hartu du, bai nazioan, bai nazioartean, sedimentologia eta morfodinamikaren espezializazioan. Estatuko eta nazioarteko hainbat argitalpen zientifiko eta teknikoren egilea da, baita nazioarteko kongresuetako txosten tekniko eta aurkezpen askoren egilea ere. Gaur egun, erakundearen barruan garatutako aktibo teknologikoen balioaren ebaluazioa zuzentzen du, eta ezagutza teknikoak eta zientifikoak sektore publiko eta pribatuetara transferitzeaz arduratzen da. Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko Euskal Aholku Batzordeko, Urdaibaiko Erreserbarako UNESCO Katedrako Adituen Batzordeko eta Portu eta Kostetako Ingeniarien Espainiako Konferentziako zuzendaritza-batzordeko kide iraunkorra da. Europa mailan, Arrantza Teknologiaren Europako Plataformako eta Akuikulturaren Berrikuntza eta Teknologiaren Europako Plataformako kide da.

Irakasleak

Penelope Curtis

Writer and arts administrator

Penelope Curtis arte historialaria da, eskultura modernoan espezializatua. ‘Patio & Pavilion: The place of sculpture in Modern Architecture’ (Getty, 2008) eta ‘Vertical, Horizontal, Open, Closed: Sculpture’ (Yale, 2017) lanen egilea da, baita artista garaikideei buruzko beste monografia eta testu batzuena ere. Calouste Gulbenkian Museoa eta Tate Britain galeria zuzendu zituen, Henry Moore Institutua Leedseko eskultura ikasgune gisa sortu ondoren. Gaur egun, irakasle bisitaria da Washingtoneko National Gallery of Art-en.

Carlos Duarte

Biólogo y Oceanografo

Carlos Duarte itsas zientzietako irakasle agurgarria da Abdullah Erregea Zientzia eta Teknologia Unibertsitatean (KAUST), eta irakaslea Aarhuseko Unibertsitatearen Arctic Research Center-en (Danimarka). Haren ikerketa oinarritzen da itsas biodibertsitatearen azterketan, giza jardueraren presioei ematen dien erantzunean eta 2050erako itsas bizitzaren ugaritasuna berreskuratzeko egin beharreko urratsetan. Duarte irakaslea munduko liderra da ozeanografia biologikoaren eta itsas ekologiaren adar ugaritan, gaur egun munduan gehien aipatzen den itsas biologoa, eta 12. postuan dago munduan eragin handiena duten klimaren zientzialarien artean. 900 artikulu zientifiko baino gehiago argitaratu ditu eta sari ugari jaso; besteak beste, BBVA Fundazioaren Ezagutzaren Mugak saria, Kontserbazioaren Ekologia eta Biologia sailean, 2020an.

Russell Ferguson

UCLA, Chair

Russell Ferguson Kaliforniako Unibertsitateko (Los Angeles) Arte Departamentuko irakaslea da. Aurretik, Los Angeleseko Hammer Museumeko kuradore nagusia izan zen. Erakusketa ugari antolatu ditu; horien artean 'In Memory of My Feelings: Frank o' Hara and American Art 'eta' Perfect Likeness: Photography and Composition', baita Francis Alys, Patty Chang, Douglas Gordon, Liz Larner, Larry Johnson eta Christian Marclayren bakarkako erakusketak ere. Kerry Brougherrekin elkarlanean, 'Damage Control: Art and Destruction since 1950' antolatu zuen.

Beatriz Herraez

Artium, Basque Museum of Contemporary Art, Directora

Arte historialaria. 2018ko abenduaz geroztik, Artium Arte Garaikidearen Euskal Museoaren zuzendaria da. Erakusketa kolektibo eta monografiko ugariren komisarioa izan da; besteak beste, Moyra Davey, Gema Intxausti, Itziar Okariz, Julia Spínola, María Luisa Fernández, Susan Hiller, Erlea Maneros Zabala, Juan Luis Moraza eta Néstor Sanmiguel Diest artistei eskainitakoak, hainbat erakustoki eta erakundetan antolatuak: Artium Museoa (Gasteiz), MARCO (Vigo), MUSAC (Leon), Azkuna Zentroa (Bilbo), Tabakalera KGNZ (Donostia), Dos de Mayo Arte Zentroa (Mostoles), Sculpture Center (New York) eta Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía MNCARS (Madril). 2007tik 2011ra, Montehermoso Kulturuneko komisario burua izan zen, proiektu aitzindaria sexu berdintasun politiken aplikazioan arte, pentsamendu eta kultura garaikidearen esparruetan. Euskadiko Museoen Aholku Batzordeko kidea eta Etxepare Institutuko kide hautatua da.

Asier Hilario Orus

Geoparkea / IUGS International Commission on Geoheritage, chair

---

Asier Hilario geologian doktorea da eta bere jarduera profesionala batez ere Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkeari lotuta dago. Egun, Nazioarteko Zientzia Geologikoen Elkarteko (IUGS) Ondare Geologikoaren batzordeko presidentea da. Bere jarduera nagusia lurraren zientzien komunikazioarekin, nazioarteko ondare geologikoaren katalogazioarekin eta Geoparkeen edapenarekin lotuta dago. Europako Geoparkeko sareko zuzendaritza batzordeko kidea da, UNESCO munduko Geoparkeen programarako ebaluatzaile gisa egiten du lana eta Nazioarteko Zientzia Geologikoen programaren (IGCP) batzorde zientifikoaren kidea da.

Lisa Le Feuvre

Writer and Curator

Lisa Le Feuvre komisarioa, idazlea, editorea eta hizlaria da. Holt/Smithson Fundazioaren lehen zuzendari exekutiboa da, artistez hornitutako Nancy Holt (1938-2014) eta Robert Smithson (1938-73) artisten sorkuntza ondareari eskainitako fundazioa, alegia. 2010 eta 2017 artean, Le Feuvre Henry Moore institutuko eskultura ikasketaburua izan zen. Europako artista-fundazio handienaren ikerketa zuzendaria izan zen, hezkuntza-, ikerketa-, argitalpen- eta erakusketa-programetan. Komisario moduan egindako erakusketak: Jiro Takamatsu: The Temperature of Sculpture, The Body Extended: Sculpture and Prosthetics, Gego: line as Object, Katrina Palmer: The Necropolitan Line eta The Event Sculpture dira, baita Institutuko Essays on Sculpture aldizkariaren edizioa ere dira. Aurretik, Le Feuvrek bost urteko British Art Show 7: in the Days of the Comet (2009-10) erakusketako komisarioa izan zen, Goldsmiths Collegen graduondoko ikastaro-programan emana (2004-10).

James Lingwood

Artangel, Codirector y fundador

James Lingwood Artangeleko zuzendarikidea da Michael Morrisekin batera, 1991tik. Artangelek azken 30 urteetan ekoitzi dituen 100 proiektu baino gehiagoren artean, aipa daitezke Rachel Whitereaden 'House' (1993-94), Matthew Barneyren 'Cremaster 4' (1995), Ilya & Emilia Kabakoven 'The Palace of Projects' (1999), Michael Landyren 'Break Down' (2001), Jeremy Dellerren 'The Battle of Orgreave' (2001), Francis Alÿsen ‘Seven Walks’ (2005), Roger Hiornsen ‘Seizure’ (2009-9), Susan Philipszen ‘Surround Me’ (2010), Heiner Goebblesen ‘Stifter’s Dinge’ (2010-12), Ryoji Ikedaren ‘Spectra’ (2014), ‘INSIDE: Artists and Writers in Reading Prison’ (2016), Taryn Simonen 'An Occupation of Loss' (2018), Elizabeth Priceren 'Slow dans' (2019) eta Steve McQueenek Londresen garatutako 'Year 3' proiektua (2019-20). Cristina Iglesiasek Toledon eginiko 'Tres Aguas' lana Artangelek komisionatu zuen eta 2014an inauguratu zen. Lingwoodek erakusketak komisariatu ditu mundu osoko museoetan.

Adolfo Uriarte Villalba

Geologian lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean (Espainia), Msc. eta PhD Ozeanografian, Southamptongo Unibertsitatean (Erresuma Batua). Hainbat proiektu gidatu eta parte hartu du, bai nazioan, bai nazioartean, sedimentologia eta morfodinamikaren espezializazioan. Estatuko eta nazioarteko hainbat argitalpen zientifiko eta teknikoren egilea da, baita nazioarteko kongresuetako txosten tekniko eta aurkezpen askoren egilea ere. Gaur egun, erakundearen barruan garatutako aktibo teknologikoen balioaren ebaluazioa zuzentzen du, eta ezagutza teknikoak eta zientifikoak sektore publiko eta pribatuetara transferitzeaz arduratzen da. Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko Euskal Aholku Batzordeko, Urdaibaiko Erreserbarako UNESCO Katedrako Adituen Batzordeko eta Portu eta Kostetako Ingeniarien Espainiako Konferentziako zuzendaritza-batzordeko kide iraunkorra da. Europa mailan, Arrantza Teknologiaren Europako Plataformako eta Akuikulturaren Berrikuntza eta Teknologiaren Europako Plataformako kide da.

Manuel Soto Lopez

Biologia Zelularreko katedraduna (UPV/EHU, 2011). Euskal Herriko Unibertsitateko Biologiako eta Itsas Bioteknologiako Ikerketa Zentroko (Plentziako Itsas Estazioa) zuzendariordea (2012-). Ingurumen Toxikologiako Zelulen Biologiako Ikerketa Talde kontsolidatuko (CBET) ikertzailea. 1983tik, CBET taldeak ikerketa- eta irakaskuntza-jarduerak egiten ditu ingurumen-toxikologiaren inguruan. Doktoretza aurreko eta ondoko ikerketa-ikasketak: Univ of Wales (Aberystwyth), Univ Innsbruck (Austria), Univ Azores (Portugal) eta University of Wales (Cardiff). 7 doktore-tesi zuzendu ditu eta beste 3 bidean. Uretako eta lurreko organismoetan (zizareak, moluskuak, poliketoak, arrainak) metalekiko esposizioaren aurkako efektu-biomarkatzaileak garatzeko eta aplikatzeko interesak, zelula-kokapena eta ioi metalikoen kuantifikazioa, zunda molekularrak xede-konpartimentu zelularretan eta metalen (forma urtsuak, forma masiboak eta nanopartikulak), plastikoak eta beste kutsatzaile batzuk.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2021-05-20 ARTE
OROKORRA	20,00 EUR
KOLABORATZAILE GONBIDATUA	0 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2021-05-20 ARTE	2021-06-03 ARTE
OROKORRA	-	20,00 EUR
Ikasleak	-	0 EUR

Kokalekua

Aquarium Donostia/San Sebastián

Carlos Blasco Imaz Emparantza 1, 20003 Donostia/San Sebastián

Gipuzkoa